

Astigarragako sagasti museistikoko lehen sagarrondoa, landatuta



ASTIGARRAGA. 10 urteko sagarrondoa landatu zuen atzo Bixente Arrizabalagak, Astigarragako alkateak eta Sagardun partzuergoko lehendakariak, Sagarlaneo ingeniariarekin batera. Hiru metroko altuera du zuhaitzak eta sagasti museistikoaren egokitzeko lanen hasiera ofiziala izan zen ekitaldia. Sagarrondo helduak

landatzeko teknika azaldu zuten, eta baita sagasti museistiko berritzailearen funtzionamendua ere. Sagardoetxeko sagasti pedagogikoaren lanak urtarri-laren 23an hasi ziren, eta arduradunek ekainerako aurreikusitako irekiera eta inaugurazioa. 5.000 metro karratu baino gehiagoko gunea izango da. ARGAZKIA: A.H.